

Txahalburuak arnoan

Euskal Herriko xoko guzietaraino zabaldu dira, ahoz aho, Pernandoren erranak eta gertakizunak.

Amezketako Ixpille-saletxe baserrian sortu zen 1764 urteko urriaren 10ean. Joxe Bengoetxea, Adunakoa, zuen aita eta Joxpantoni Altuna, Amezketakoa, ama. 1790-ko maiatzaren 3an amezketar batekin ezkondu zen, Mari Joxepa Sagastumerekin. Bederatzi seme-alaba munduratu zituen. Azentzin-txikia izeneko baserrian hil zen, 1823 urteko uztailaren 9an. Ez dakigu gehiagorik Fernando Amezketarraren bizitzari buruz.

Bertsolari handia eta umore handiko gizona zen Fernando. Irakur ezazue denak eta on dagizueta....

Hiztegia

Jatetxea = ostatua, restauran

Kopeta beltz edo kopeta ilun

hasarre jarri = hasarre eman

eskatu =galdegin,galdatu

iretsi = jan

Pernando, tripak jatekoa galdetzen zionean eta moltsak sosik ez zuenean, pentsaketan hasten zen : nola jango zuen ?

Hortakotz, eguerdi aldean, herriko ibai bazterrerat joan zen eta zapaburu batzu harrapatu zituen. Sakeletan sartu-eta, **jatetxerat** joan zen bazkaltzeko.

Nahiko jan zuenean eta kafea hartu aintzin, baso barnerat botatu zuen txahalburu bat. Gero, botoilarat botatu zituen bertze txahalburuak eta nagusia deitu zuen, **kopeta belztuz** :

“-Nundik atera duzu arno hau? Hunek ez du arnoaren izenik merezi. Nola ausartzen zira ur zikin hau jendeari ematen ?

-Zer duzu, Pernando, zer duzu hain hasarre **jartzeko** ?

-Hasarre ? Eta nola ! Horrelakorik ez zaio gizonari egiten. Arnoa **eskatu** eta zikinkerri hau ekarri ? Aberats haundiki horietakoa izan banantz ez zinautan horrelakorik egingo.

-E, e, hitzak neurtu, Pernando ! Nik ez dautzut nihungo zikinkeriarik eman. Entzun ? Hobe zinuke metatu dituzun zorrak ordaindu eta ixil-ixilik egongo bazina.

-Nola egonen naiz, ba, ixilik zerrikerri hau ikusita ? Txahalburu bat kasik **iretsi** nuen lehenengo arno tragoan !

-Zer txahalburua ? Nun ?

-Itsua izan behar nuke hau ez ikusteko. Hurbil zaite pixka bat eta begira ezazu. Zer da hau ?”

Pernandok ostatu gizona akusatzen du, nahi du justizia aintzinerat ereman

halabeharrez = nahi edo ez, ezinbertzean;

zor = dette, emprunt

zorrak xuritu = behar zirenak pagatu (régler les dettes, rembourser).

Nagusiak ez zakien zer erran eta zer egin.

“-Eta zonbat dira botoilan ? Begira...lau kondatzen ditut nik.”

Pernandok segitu zuen.

“-Bixtan dena ! Putzuko ura nahastu duzu arnoarekin eta ur zikinarekin batera txahalburuak ere arnorat botatu diruzu. Hau ez da hola geldituko : ni **auzi** ematerat noa !”

Orduan nagusiak, goxo goxo, hola hitz egin zion :

“-Begira, Fernando, egia errango dautzut. Ez dut sekulan urik ematen eta, **halabeharrez**, gaur ur-xorta bat eman dut, bainan iturriko ur garbi-garbia. Nik ez dakit txahalburu horiek nundik etorri diren.

-Nahi duzuna erranik ere, hau ez da hola geldituko.

-Otoi, Fernando ! Bien arteko tratu bat egingen dugu. Begira, orai arte **zor** guziak barkatuko dauzkitzut. Eta hor eskailerapean dutan arno botoila on bat eskainiko dautzut. Eta ez iezaiozu nihori hemen gertatu denaren berririk eman.”

Arno botoila bat eskuan, tripa beterik eta zentimorik gastatu gabe zor guziak **xuriturik**, ateratu zen Fernando jantoki hortarik...

Ulermena :

1. Zertako Pernandok erraten zuen bere baitan : ”Nola jango dut ?”
2. Norat joan zen eguerditan?
3. Fernando usatua ote zen jatetxe hortarat ibiltzea ?
4. Zonbat txahalburu baziren arno botoilan ?
5. Zer eskaini zion nagusiak Fernando ixilarazteko ?
6. Nola bururatu da bazkaria ?

Zonbat hortz ditu ardiak ?

Egun batez, erretoretxean, apezak galdetu zion Pernandori :

- **“Nor da Jainkoa, Fernando ?**
- **“Jainkoa bera !”,** erantzun zion Pernandok.
- **Errexki erantzun duzu ! Adizu, eta ba ote dakizu zoin diren obra miserikordiazkoak ?**
- **Ez, jauna. Hori ez dakit.**
- **Ez dakizula ?,** oihu egin zuen apezak. **Bai, orduan ez dautzut txartearik emango. Heldu den iganderako ikasi eta etorri.**
- **Hala beharko... Eta zuk,** galdetu zion Pernandok apezari, **ba dakizu ardiak zonbat hortz dituen ?**
- **Ez...**
- **Ea ba zuk ere iganderako ikasten duzun...**

Ondoko igandean, Fernando itzuli zen. Apezak galdetu zion :

- **Ikasi dituzu obra miserikordiazkoak, Fernando ?**
- **Bai, jaun erretora, ikasi ditut.**
Eta zuk ikasi duzu nik errana ?, galdetu zion Pernandok.
- **Bai, Fernando, bai ! Ardi bakotxak zortzi hortz ditu.**
Eta Pernandok :
- **Gainean ala beherean ?**
- **...**
- **Ardiak beherean dauzka hortzak, jaun erretora !**

Apezak ez baitzuen azken hitza erran, ixil-ixilik gelditu zen.

Notarioa

Egun batez, zituen arroparik ederrenak beztiturik ibiltzen zen Fernando. Bidean, notarioa atxeman zuen.

- “ **Bainan nora zoaz hain galant jantzirik, hain eder beztiturik, Fernando ?, galdetu zion lege-gizonak, harriturik. Aberastu zira ?**
- **Batere ez, jauna !**
Ikatz egiterat pentsatu dut, diru pixka baten biltzeko.
- **Ikat egiterat ?**
Ezazu holakorik egin, gizona !
Ez da batere ofizio egokia : ez duzu entzun orai arte zeruan ez dela ikazkin bat ere sartu ?
- **Ez da hola, jauna , erantzun zion Pernandok.**
Behin sartu omen zen ikazkin bat zeruan. Denak harriturik gelditu ziren nunbeit ikazkina zeruan ikustean. Eta gertakizun haren berri hartzeko agiri ofizial bat egitea pentsatu zuten. Agiria egiteko notarioa behar da. Zeru guzian notario bila ibili ondotik, ez omen zuten bakar bat ere atxeman. Zerua zeru denez geroztik, ez omen da lege-gizonik sartu oraindik...”

Pernandoren heriotzea

Pernandok, bere azken urteetan, hau kantatzen zuen :

“Zahartuta, ni bi aldiz ume bihurtu.
Mami denak urtu,
axala zimurtu,
hexurrak agertu,
gerria okertu,
bizkarra makurtu,
beharriak gogortu,
bixta laburtu,
junturak lehortu,
haizea samurtu,
oso naiz beldurtu,
ia ez daukat bada zerekin poztu.
Hala ere munduan ezin aspertu.”

Egia ala gezurra den ez dakigu baina, Amezketan herrian diotenez, adan gehiegi jan-eta, ura edan zuen Pernandok. Eta handik hil omen zen.
Hiltzeko zorian zelarik hitz hauek erran zituen :

“Ni hiltzen naizenean zabaldu jendearen artean berri hau : beti erdi-goserik eta miserian bizigatik, Fernando ez duela goseak hil ; ongi aseta hil naizela.”